


**Joan Mari
Torrealdai**

XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2006/07

*Euskal kazetaritzaren
labirintoan*





Kazetaritza soziologiaren enborretik

*Mila esker
eta zorionak Joan Mari!*



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzaile:

Andoaingo Udala
Euskararen Normalkuntzarako
Lansaila
Goikoplaza, z/g
20.140 Andoain
® 943 300 830

Argitalpenaren arduradun:

Jon Unanue



Ekoizle:

Erroitx, b.m.
Hedabide eta iragarbideak
Dr. Huizi kalea, 15-1. esk.
20.140 Andoain
Tel.: 943 300 732

Ekoizpenburu:

Jon Ander Ubeda

Erredaktore:

Leire Zubeldia

Diseinatzaile:

Maddi Trutxuelo

Argazkiak: Xabier Ubeda, Iñigo Arizmendi, Zaldi Ero, ARGIA astekariko Dokumentazio Artxiboa (Loubet, Aitor Bayo edota Alberto Elozegi argazkilarien argazkiak).

Irarkola:

Antza, S.L.
(Lasarte-Oria)
ISBN: 84-921732-5-4

Lege-gordailua:

SS-881-2007
700 aleko argitaraldia egin da
2007ko ekaina

Andoaingo Udalak XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren Ohorezko Aipamenaren kariaz bereziki egindako argitalpen osagarria.

© Andoaingo Udala

Gutziz galarazita dago argitaratzailearen baimen idatzirik gabe argitalpen honen aldakirik egitea edo hori berrargitaratzea edozein bitartekoz baliaturik.

Esker ona:

Argitaratzaileak bere esker ona adierazi nahi die argitalpen hau osatzeko laguntza eman duten erakunde eta lagun guztiei, bereziki, Gipuzkoako Ahalduen Nagusiaren Kabineteari, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eta Usurbilgo Udalari.



**Sarirako
izendatu
nautenek
ez dute
imaginatu ere
egingo eman
didaten poza,
ilusioa.
Rikardo
laguna eta
lankidea
izan nuen,
adinkidea
izatez
gainera”**



Aurkibidea

XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2006/07

Epaimahaia	4
Ohorezko Aipamena, azken erabakia	6
Kultura Sailburuaren adierazpena	7
Karlos, Rikardo eta Joan Mari	8
Joan Mari Torrealdeiri elkarriketa	10
Joseba Intxausti	18
Joxe Azurmendi	30
Joxe Ramon Beloki	32



ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalkuntzarako Lansaila



Rikardo Arregi
Kazetaritza Saria





XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2006/07

Epaimahaia

Jose Antonio PÉREZ GABARAIN (Tolosa, 1944)

Diktaduraren garaian sindikalgintzan eta auzolangintzan jardun ondoren, Frankismoaren osteko lehenengo udal demokratikoan alkate hautatu zuten, 1979. urtean, Euskadiko Ezkerra alderdiko hautagai izan zelarik. Geroztik tokiko politikagintzan jardun du, bai Udalean (laugarren agintaldia du oraingoa) bai Gipuzkoako Batzarre Nagusietan bi legegintzalditan, egun PSE-EEko ordezkari gisa. Beraz, zortzigarren urtea du epaimahaiburu gisa.

RAKS epaimahaikide: 1995/96, 1996/97, 1997/98, 1998/99, 2003/04, 2004/05, 2005/06 eta 2006/07



**Ana
URKIZA
IBAIBARRIAGA**
(Ondarroa, 1969)

Kazetaritzan lizentziatua (EHU), Hizkuntzalaritzan diplomatua (UNED) eta Enpresa Komunikazioan eta Komunikazio komertzialean masterra (ESC-Toulouse). DANOBAT Taldeko komu-

nikazio arduraduna izan zen hainbat urtez, eta baita Euskal Idazleen Elkarteko kudeatzaile ere. Gaur egun, Deustuko Unibertsitateko irakasle gisa dihardu. Hainbat komunikabidetan kolaboratzen du, besteak beste, Berria eta Deia egunkarietan. Literatur idazle gisa, obra zabala du argitaratua ipuin eta poesia generotan eta haur eta gazte literaturan ere. Literatur itzulpenak ere argitaratu ditu.

RAKS epaimahaikide: 2000/01, 2001/02, 2003/04, 2004/05, 2005/06 eta 2006/07



**Jose Inazio
BASTERRETXEA
POLO**
(Galdakao, 1959)

Kazetaritzan doktore (EHU), gaur egun EHUKo Gizarte-eta Komunikazio-zientzien Fakultateko irakasle titularra da. Ezagunak dira komunikazioa azterkizun duten bere ikerketa- eta irakaskuntza-

lanak: *Arerioen dualitatea kartel politikoan* (EHU, 1996); *Semiotika eta Masa-Komunikazioa* (UEU, 1997); *Komunikazioaren eta Informazioaren Oinarriak* (UEU, 1997); *Kultura-aniztasuna eta Gizarte-komunikazioa* (UEU, 2002); *Aurkari ikusezina, identitateaz eta gizarte-komunikazioaz* (Alberdania, 2003). Euskal Telebistan jardun zuen hamaika urtez, eta sarri kolaboratu du euskal medioekin.

RAKS epaimahaikide: 2003/03, 2003/04, 2004/05, 2005/06 eta 2006/07



**Arantxa
URRETABIZKAIA
BEJARANO**
(Donostia, 1947)

Donostian sortutako honda-
rribitarra. Historian lizenzia-
tu zen Bartzelonako Uniber-
tsitatean eta kazetaritzako
ikasketak bukatu gabe utzi
zituen. Kazetari da lanbidez
eta hainbat komunikabide-

tan egin du lan (Egin, ETB, Diario Vasco, El Mundo, Radio 1...) Idazle gisa poesia eta eleberria landu ditu. Azken atal honetan, besteak beste, *Zergatik Panpox*, *Aspal-dian*, *Saturno* eta *Koaderno Gorria* obrak argitaratu ditu. Aurten bertan, Radio Euskadin, ETB-n eta Diario Vas-con ari da, kolaboratzaile gisa.

RAKS epaimahaikide: 2004/05, 2005/06 eta 2006/07



**Agustín
ERROTABEHERRI
ETXEBERRI**
(Baigorri 1945)

Nekazaritza ingeniari ikas-
ketak egin zituen Angerse-
ko eskolan eta hori izan du
urte askoz ogibide, lehenik
irakasle gisa Hazparneko
Nekazaritza Eskolan eta,
ondoren, gehien bat *Lur Berri*

Kooperatiban, iparraldeko nekazari munduan murgil-
durik. Iparraldeko ezagutza sakon horrek eraman zuen
duela urte asko kazetaritza mundura, eta 13 urtez kaze-
tari gisa jardun zuen Euskadi Irratian eta Euskal Tele-
bistan, baina baita aurretik eta ondoren prentsa ida-
tzian ere Herria, Argia, La Semaine du Pays basque eta
Sud-Ouest hedabideetan.

RAKS epaimahaikide: 2005/06 eta 2006/07



**Aitor
ZUBEROGOITIA
ESPILLA**
(Etxebarria, 1972)

Informazio Zientzietan lizen-
tziadun eta doktorea (EHU).
Zenbait hedabideetan lan egi-
nikoa: Cantera, Euskaldun-
on Egunkaria, Aizu!, Argia
eta Zenbat Gara kazetetan eta
Bilbo Hiria Irratian. Euskal

Idazleen Elkartean ere ibili zen beharrean. Topagunea
Euskara Elkarteen Federazioko Hedabide saileko susta-
zaile ohia. EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzien
Fakultateko irakasle izan ondoren, Mondragon Uniber-
tsitatearen HUHEZI fakultatean ari da 2005az geroz-
tik, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasketetan. *Agirre*,
Gandi, *Che* eta *Katalina Erauso* biografiak eta *Globali-
zazioaren adarrak* eta *Bidegorriak hizkuntzentzat* saiake-
rak argitara emanak ditu.

RAKS epaimahaikide: 2006/07



**Rosa
OKARITZ
MORÁN**
(Santurtzi, 1958)

Soziologian eta Euskal Filo-
logian lizentziatua Deustuko
Unibertsitatean. Soziologo
gisa hasi zen lanean Eusko
Jaurilaritza eta Bermeoko
Udalan, baina bere lan-jar-
dunik luzeena euskararen ira-

kaskuntzan eman du Santurtziko euskaltegian eta eskual-
deko beste batzuetan. Iaz, *Bermeoko etorkinen egoera* ize-
neko ikerlana burutu zuen eta, aurten, Rikardo Arregi
Kazetaritza Sariako idazkari gisa jardun du maiatzera bitar-
tean.

RAKS epaimahaikide: 2006/07

XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2006/07

OHOREZKO AIPAMENA

AZKEN ERABAKIA

Joan Mari Torrealdai Nabea

(...)

Epaimahaiak euskarazko kazetaritza modernoaren iturbururaino jo nahi izan du, Frankismoaren zulo beltzean aitzindari gutxi batzuek euskarak berezko eta berariazko kazetaritza izan zezan ahalegin itzela, eta sarri ahalegin arriskutsua, egin behar izan zuten garaietaraino. Orduz geroztik euskarazko kazetaritzak ibilbide luzea egin du, berrogei urte-tik gorakoa, bide luze bezain korapilatsua, bide hori sarritan itxi, eragotzi, itsutu, ezkutatu baitzaigu, euskal prentsaren eragile haiek benetako labirinto batean barrena bailebiltzan: zentsura, debekuak, mehatxuak, arazo ekonomikoak, itxierak...

Hamaika arazok benetako labirinto bihurtu dute euskarazko kazetaritzaren bilakaera azken berrogeita hamar urteotan. Labirinto horretan arazoak eta arriskuak ez dira izan beti, gainera, berehala antzeman edo erraz ezagutzekoak: Franco hil ondoreneko haize berritzaileen zirimolan, euskaldunok gure buruari gogora arazi behar izan genion ere euskal prentsa euskaraz egindakoa zela, euskaraz landutakoa, iazko edizioan aldarrikapen haren hogeita hamargarren urteurrena bete zenean gogora ekarri genuen legez.

Labirinto luze horren hasierako aitzindari bikain haietakoa izan genuen sari honi izena eman zion Rikardo Arregi andoaindarra, euskal kazetaritza Europan indarrean zen kazetaritzaren molderik berritzaile-netara erakarri nahi izan zuena, eta haren lankide, lagun eta bidaide gaur sarituko dugun ikerlari, idazle eta kazetari foruar-usurbildarra.

Izan ere, 1960ko hamarkada zail hartan, Jakin ekimenaren baitan pentsamendu unibertsalaren euskal jakintza sortu eta aldizkaria argitaratzeari heldu zitzaionean, foruar gazte batek gogotik ekin zion erronka itzel hari, eta Jakin aldizkariak lehen krisialdia bizi izan zuenean hura berbideratzeko uhalak esku artean hartu eta geroztik —hala esan bailiteke— ez ditu askatu, ez Jakinen, ez eragin, zuzendu edo sortu dituen gainerako kazetaritza proiektuetan ere. Labirinto luze horretako ibilbide neketsuan, gaurko sarituak euskal kazetaritzak gainditu behar izan duen hamaika traba, oztopo, galerazpen, arazo eta okerreko liluratik aitzin,



euskal kazetaritzari bidea zabaltzen eta erakusten ahalegin itzela egin du, lan bikaina euskal kazetaria labirinto amarrutsuan gal ez zedin.

Beraz,

- Sarituari, gaur egungo euskal pentsamoldearen ikuspegitik, aitzindari, aztertzaile eta bultzatzaile izatea aitortu behar zaiolako.
- Kazetari edo zuzendari, bakarka edo taldeka aritua, euskarazko prentsaren sortzaile adoretua dugulako.
- Berak bultzaturiko ekimenen artean, euskarazko prentsak eman dituen ekarpen garrantzitsuenetakoa ditugulako.
- Berak jorratutako ibilbideak eta plazaratutako ikerketa eta adierazpenek kazetarien askatasunaren ikur eta euskal kazetaritzarentzat ezinbesteko erreferentzi bihurtu dutelako.
- Hitz gutxitan, euskal kazetaritza berriaren bitartez euskaldunoi mundua ulertzeko lan-tresnak eskaini dizkigulako.

Merezimendu horiek guztiak aintzakotzat harturik, XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren Ohorezko Aipamena Joan Mari Torrealdai Nabea jaunari ematea erabaki du Epaimahaiak.

(...)



Torrealdai, talaiaiko gizona

Talaiaiko gizona dugu Joan Mari Torrealdai, Foruko semea. Begiradaz, belarriz, usaimenez, ukimenez, itsaso-orroarekin beti ernai. Euskaldunok eginda-

ko bidearen gozoak ez gaitzan sekula utz alderrai. Errealitatearen azterketan murgilaria. Sozio-
logo eta kazetari konprometitua. “Bizkaitarra baino lehen euskalduna”, euskara batuaren bultzatzaile sutsua. Rikardo Arregi zenaren bidaide eta gogaide. Euskal kulturarekin maitemindua, “*euskal kulturaren indargunea eta ahulgunea bat bera da, diferente izatea*”, berak esana. Euskaltzain urgazle. Mintzo debekuaren nahiz zentsuraren iker-tzaile eta pairatzaile. Izan ere, esku beltzek jazarri bazuten ere jalgi zen garbia. Gizon baikorra, jasandakoak jasanda eta Euskaldunon Egunkaria, bidegabeki, oraindik itxita egonda!

Dotorezia da Jakin aldizkarian lemazain lane-tan erakusten duena kultura zientzia, filosofia, politika eta teologia euskararekin ezkonduz. Xabier Letek “*Izarren hautsa*” bere poema inarroslean dioen bezalaxe, “*gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea, naturarekin bat izan eta harremanentan sartzea. Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiaik lurrari lotuz, bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz, ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea*”.

Jakin-en sinonimo bilakatzeaz aparte, inurriaren irudia datorkit gogora Joan Mariz mintzo. Arantzazuko Frantziskotarren ildo jarraitu du,



Miren AZKARATE VILLAR
Kultura Sailburua

belaunaldi horiek elizaren baitatik euskararen eta euskal kulturaren alde aritu baitziren; eta ondoren elizatik kanpo, bere lan oparoari esker euskara eta euskal kulturari atxikiak segitu dute.


Iaz, mende erdi bete dituen Jakin aldizkariari “Argizaiola” omen-saria eman zion Durangoko Azokako antolatzaile den Gerediaga Elkarteak, “gauean argia” izan direnei eskerrak emateko. Eta Joan Marik saria jaso zuenean pentsatu nuen bere lan ikaragarria euskal kulturaren alde argizaiola baten modukoa ere bazela, zeren Torrealdai, bere talaiaitik, gure sugarraren eragile, eramaile eta jagolea da, joan zirenen eta etorriko direnen elkar-garri, sinismenaren sinboloa den argizaiolaren gisan. Hain zuzen, hauxe dugu bere ametsa: bere liburuak etorkizuneko belaunaldientzako lane-rako tresna izan daitezela.

Karlos, Rikardo eta Joan Mari

Karlosek, Joan Mari eta Rikardok osatu zuten 1967. urtean Jakinen hirukoa, bata bestearen osagarri, bultzada berria emateko aldizkariari. Arantzazuko haria eteteko abilezia izan zuen Karlos Santamariak. Abilezia, eta ardurak banatzeko trebezia: Joan Mari zuzendari, Karlos erredaktore buru eta Rikardo laguntzaile. Adinekoak ondo baino hobeto zekien eraldaketa gauzatzeko gazteengan konfidantza izan behar zuela, eta ez zioten hutsik egin. Lantalde

horrekin aldizkariak herrian, kalean lur hartu zuen.

Garaia erantzun behar. Egoera berri horretan, Jakin berria egiteko jardun kontziente horretan, onuraduna ez zen aldizkaria bera bakarrik izan. Berrikuntza eta garapena praktikara eramateko ideien laborategi bilakatzen ari zen Jakingo hirukoak eta enparauek osatzen zuten lantaldea. Irakurtzeko liburuak behar, liburu horiek ulertzeko alfabetatuak behar... Aldizkaria baino gehiago zen Jakin. Eta





©Foto Loubet / ARGIA argazkitegia.

Andoain

Rikardo Arregiren omenezko ekitaldia iragartzeko agerraldia. Ezker eskuin: Iñaki Beobide kultur eragilea, Xabier Lete musikaria, Juan San Martín euskaltzaina eta Joan Mari Torrealдай Jakineko zuzendaria.

horretara baino gehiago zabaldu zen eragileen lana.

Karlos irakasle, kultur eragile eta idazle izan zen. Ingenierien Goi ikastetxea, EUTG unibertsitate ikastetxea edota Zuzenbide eta Kimika fakultateak haren lanaren zordun dira. Eraiki-nak eta egiturak bezainbesteko garrantzia izan zuen Karlosentzat hizkuntzak, euskarak. Jakin modernizatzeko ikuspegi bera aplikatu nahi izan zuen euskara biziberritzeko. Garaiari erantzun behar horretan, euskalduna gaurkotasunez asetu nahi zuen Egunkaria Sortzen taldean esku hartu zuen. Liburuak ere argitaratu zituen.

Eta, hain zuzen, idazte horretan biderik opa-roena egindakoa Jakin zuzentzeko Karlosek proposatu zuen gazte hura izan zen: Joan Mari Torrealдай.

Joan Mari idazle, kultur eragile eta irakasle da. Urte luzez Jakin aldizkariko gidaritza eta liburugintza uztartu ditu. Kultura, literatura, euskara, zentsura..., gai potoloak horiek denak. Tamaina berean argitara eman dira bere azterlan guztiak. Jakin eta Joan Mari bereiztea

zail bada, zailago beraren eta ingurukoen presentziarik gabe euskarazko egunkariak lehen urratsak ematea.

Rikardok osatu zuen hirukotea. Ibilbide laburrean utzitako itzala ez da, ez, nolana hikoia. Hogeita bost urte besterik ez eta adinkide zuen Joan Marirekin astindu ederra eman zioten euskalgintzari. Lehen lerroan ipini eta, aurrera bidean, gidari. Harik eta heriotzak Rikardo eraman zuen arte. Albiste latz hura gertatu eta gutxira zentsuraren atzaparrak harrapatu zuten Jakin.

Andoaingoaren adimen indartsu eta argia deigarri ziren Karlosentzat. Jakineko ardura bi gazteen esku utzi zuenak zioen Rikardoren nortasuna ondoen erakusten zuena bere lana zela, eta “gazte askoren ikasbiderako biltzea komeni zaigu” gaineratu.

Urteak igarota, mitifikazioan erortzeko arriskurik gabe, zera ondoriozta daiteke: Karlos Santamaria, Joan Mari Torrealдай eta Rikardo Arregi euskal kazetaritza eta kulturgintza modernoaren oinarriak jartzeko erabakiorrak izan ziren.



Labirintoan ibiltari, nekaezin

Euskal kulturaren labirintoan hainbat bide jorratu ditu: Kazetaritza, liburgintza eta saiakerarena besteak beste. Hainbat ate itxita topatu arren beti jakin du labirintoan aurrera egiten.

Bere lehenengo ikasketak Foruko herri eskolan egin zituen. Batxilergoa, Arantzazun burutu zuen. Ondoren Filosofia ikasi zuen Nafarroako Oriten. Han hiru urte (1954-1959) igaro zituen eta beste lau urtez, (1963-1967) Arantzazun egon zen Teologia ikasketak egiten. Bertan amaitu zuen apaiz karrera 1967an. Urte berean hartu zuen Jakin aldizkariako zuzendaritza bere gain Karlos Santamaria eta Rikardo Arregirekin batera. 1969an, Joan Marik bi euskarri galdu zituen: Administrazioaren debekuz Jakin bera eta Rikardo Arregi adiskide eta lankidea auto istripuz. Heriotz bikoitz horri bizitzen eta ikasten jarraituz erantzun zion Torrealdai. Frantzia, Toulousen zehazki, Teologian Lizentziatu zen (1972) eta aldi berean, Hizkuntza Frantsesean Diplomatura lortu zuen. Geroago, Frantziako hiriburuan bertan, Gizarte Zientzietan lizentziatu zen. Frantziatik bueltan, Anaitasuna hama-boskariaren zuzendari izan zen eta horren gidaritzan ziharduela, “geu gara euskal prentsa” aldarrikatu zuenetariko bat izan zen. 1977an, Anaitasunaren ibilia amaitzearekin batera, Soziologiako irakasle moduan jardun zuen Deustuko Unibertsitatean, baita gerora, EHU ere. Urte hartan debekuaren itzalpetik argitara ateratu zen oster ere Jakin. Lan talde berriarekin, lehenago eskola eta lantoki izan zuen agerkarira bueltatu zen Joan Mari, ordutik gaur arte, berta-

ko zuzendari izan delarik. 80ko hamarkadan, beste proiektu batean murgildu zen: euskarazko egunkaria. Egunkaria Sortzen ekimenean hartu zuen parte, besteak beste, Joxemi Zumalabe eta Martin Ugalde alboan zituela. 1990ean argia ikusi zuen Euskaldunon Egunkaria-ko Administrazio Kontseiluko kide, zenbait urtez, Editorial Kontseiluko zuzendari eta 2000tik 2003ra, Administrazio Kontseiluko lehendakari izan da. Egun, auzipeturik dago epaiketaren zain.

Bere ibilbide luze eta emankorrean, Torrealdai euskal kultura eta euskara izan ditu aztergai argitara eman dituen hainbat ikerketa eta saiakeratan. 1977an *Euskal idazleak gaur*, 1984an *Euskara eta Euskal Telebista* 1997an *Euskal kultura gaur*. Joan Marirena da baita ere, XX. mendeko euskal liburuen katalogoa burutzeko ekimena, aurreko mendean euskaraz plazaratu ziren liburu guztiak bilduz. 1998an oster, *El libro negro del euskera* liburua ondu zuen. Gogoz eta arimaz landu duen beste gaia zentsurarena da. Horrela burutu zuen Deustuko Unibertsitateko Zientzia Politikoak eta Soziologia Fakultatean egindako tesi doktora: *La Censura gubernativa y el libro vasco (1936-1983)*. Labirintoko hainbat atek lehenagotik egindako bideetara eramaten dute, eta Joan Marik, zentsura ikertu ostean, 2003an Euskaldunon Egunkaria-ren itxierarekin bere larrutan pairatu zuen.

Umoretsu eta irrifarra ahoan duela atzera begira jarri da euskal kulturaren laberintoko bide, txoko eta zirrikitu ia guztiak ezagutzen dituen gizona, Joan Mari Torrealdai.



JAKINen garapena eta Torrealdai-
ren ibilbidea estu-estu lotuta doaz.
1961 urtean debekatu zuten lehen
aldiz **Jakin**. **19** urte zenituen
orduan. **Non** zinen zu orduan?
Nolako zen orduko gazte hura?

34 bat urte daramatzat **Jakin**-en
zuzendari gisa, horietako gehie-
nak aldizkariaren eta bestelako
proiektu eta zerbitzuen buru. **Jaki**-
n-ek eta biok urte mordoa da-
ramagu elkarri lotuta, armonia
onean. Baina aipatzen duzun da-
ta horretan ez genuen elkar eza-
gutzen. Ez dut gogoan debekua-
ren berri izan nuenik ere, Aran-
tzazutik aparte bainengoen or-
duan, ikasketak egiten.

22 urte besterik ez zenituela, **1964**.
urtean sartu zinen **JAKIN**-eko

zuzendaritza taldean. Baina ber-
tan hasi baino lehen, zer zen **JAKIN**
zuretzat?

Artean ikasle gaztetxo ginenon-
tzat **Jakin**-ek prestigio handia
zuen. Ohore handia zen **Jakin**-
eko kide izatea. Inoiz esan izan
dut **Jakin**-en sartzea hautatuen
klubean sartzearen pareko zela
guretzat ordutan. Gure aurrekoek,
Joseba Intxausti batek, Joxe
Azurmendi batek, izena bazuten
ordurako. Sartu aurretik ohorea
zen **Jakinkide** izatea, eta sartu eta
gero konturatu nintzen lana eta
erantzukizuna zela.

1966-1967 urtean irakasle aritu
zinen Zarautzen. Etorkizunean
egingo zenuen arrastorik ba al
zenuen ordutan?

Irakasle izan naiz, lehenengo Zarautzen, eta gero Deustu edo Leioako Unibertsitateetan, baina bokaziorik gabe. Ez dut sekula maite izan irakasle ofizioa. Ni ez naiz nonbait inori “lezioak” ematekoa. Gehiago gustatu izan zaizkit ikerketa, azterketa eta horien dibulgazioa.

Idatzia lotua joan da nire bizitza, idazlumari, eta ez pulpitoari, katedrari, mikrofonoari. Ez dakit zergatik, egia esan. Agian Martin Ugaldek esaten zuen horregatik, distantzia egokiagoa dela burutik eskura doana, burutik ahora bitartekoa baino, pentsatzen duzuna azaltzeko momentuan.

Lehenengo urte horiek nahasi samarrak izan ziren. Esan daitezke, agerkaria krisian zegoela batez ere 1967an. Zer eraman zuen egoera horretara?

Frankismo garaian dena zen nahasia, adierazpen askatasuna tarteko zeukan guztia. Eta batez ere

frankismoaren bigarren aldiari, guri tokatu zitzaigun hartan. Legearen eta gizartearen tartean geunden gu, gure aldizkariarekin. Legea ezin estuagoa zen, eta gizartearen bor-borreen zegoen. Ataka horretan ez dira harritzekoak isunak, debekuak eta astinaldiak. Jakin-en kasuan, gainera, barruko krisia ere bazen, hazkunde krisia, Arantzazuko estudiantegazteentzat “handiegia” baitzen Jakin-en inguruko burrunba.

Adituek diote Karlos Santamariak JAKIN Arantzazutik ateratzean aldizkaria bera “salbatu zuela”.

Neurri batean berari eskerrak gorde zuen Jakin-ek bere independentzia, “felipeen” saio bat izan baitzen Jakin-ez jabetzeko, eta Karlos Santamaria enteratuta zegoen, gu ez. Bai orduan, zorionez, eta bai geroztik Jakin-ek beti eman dio urregorriaren balioa independentziari.

Jardun editorial eta periodistikoa

■ *Anaitasuna* hamaboskariaren zuzendaria (1974-1977).

■ *Jakin*-en zuzendaria, 1964tik 1969ra, eta 1977tik gaur arte.

■ *Jakinkizunak*, S.L. argitaletxeko gerentea, 1990etik aurrera.

■ *Comun* aldizkariaren erredakzio kidea, 1979tik desagertu arte.

■ *Euskaldunon Egunkaria* egunkariako Editorial Kontseiluko zuzendaria, sorreratik.

■ *Euskaldunon Egunkaria* enpresako Administrazio Kontseiluko kidea, sorreratik.

■ *Egan*, *RIEV*, *Euskera*, eta beste aldizkari askotan kolaboratzaile.

■ *Elkar* eta *Elkarlanean* argitaletxeko kidea sortzailea. *Euskaigintza Elkarlanean* Fundazioaren Patronatoko kidea.



1973ko udazkenean aterata dago argazkia. Garai hartan Parisen bizi zen ikasle. Denbora gutxira, *Anaitasuna* hamaboskariaren zuzendaritza ere hartu zuen.



Argitaratutako artikuluak, aukeraketa

Prentsa aztergai eta hizpide bakarra izan du Joan Marik urte luzez. 1983 urtera bitarte makina lan egin zuen alor honetan. Hona, argitara emandako artikulu horien guztien artean aukeraketat, askoren artean:

■ "Gerraondoko komunikabideak", in: 24 orduak euskaraz, 1976.

■ "Euskal kazetaritza gaur etabihar", in: Euskera XXII, 1977, 5.

■ "Euskal prentsa euskaraz", in: Anaitasuna 323-324, 1976

■ "Aldizkari berriak", in: Anaitasuna 287, 1974.

■ "Zinema, zentsura eta dirua", in: Anaitasuna 294, 1975.

■ "Egunkari bat euskaraz?", in: Anaitasuna 304, 1975.

■ "Iraun!", in: Anaitasuna 304, 1975.

■ "TVE Euskal Herrian", in: Anaitasuna 307-308, 1979.

■ "Kazetaritzaren urtea", in: Anaitasuna 307-308, 1975.

■ "Kazetari txartela adierazpen askatasunaren aurka", in: Jakin 23, 1982.

■ "ETB euskaraz!", in: Jakin 25, 1982.

■ "Zentsurarik gabeko pantailak", in: Jakin 28, 1983

Karlos Santamaria, Rikardo Arregi eta zu zeuk osatzen zenuten zuzendaritza. Nolako zen lan talde hura?

Jakin-en krisi horretantxe jaso nuen nik aldizkaria hartzeko enkargua. Bidaurretako bilera ha-

ren ondoren

Jakin indepen-

diente mantendu zen, bai, baina ahul, ekiporik gabe, hiltzorian. Orduan soluzio bila Karlos Santamariarengana eta Rikardo Arregiengana jo nuen, eta bie esker lortu genuen ekipo berria martxan jartzea, eta batez ere Jakin berria diseinatzea, Frantziako "Esprit" aldizkari pertsonalistaren eredura. Talde handiagoaren barruan guk hirurok ekipo motorra osatzen genuen: Karlos Santamariak gaiak proposatu, Rikardo Arregik diseinatu eta nik kudeatu egiten genuen.





Azurmendik esana da 1968-1969 “loriazko urtea” izan zela. Nola gogoratzen duzu garai hura?

Urte zail eta aberatsak izan ziren haiek, ez bakarrik Parisen, baita Euskal Herrian ere. Jakin-ek ere izan zuen bere protagonismotxo, batez ere jaiotzen ari zen euskalgintza berriaren gidari moduan. Egin kontu urte horietan sortzen direla Ikastolak, Euskalduntzea eta Alfabetatzea, argitaletxe berriak, Euskal Kanta Berria. Nik zorte handia izan nuen aldamenean Karlos Santamaria Erredakzio Buru eta Rikardo Arregi laguntzaile izanda. Bata intelektual europarra eta bestea eragile peto-petoa.

Zuzendaritza hartu zenuenetik aldizkaria bera salbatu zenuela dioenik ere bada.

Hala izango da, baina ez da nire meritua. Berriz diot zorte handia izan dudala beti, bai orduan eta

gero ere bai Jakinkideekin. Hasi pentsatzen, Karlos Santamaria, Rikardo Arregi, Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Paulo Agirrebaltzategi, eta beste asko izan ditut ondoan.

“Gaurrari eta herriari lotutakoa” Hori zen JAKIN berrituaren definizioa... JAKIN zenbaterainoko izan zen baliagarria indarrean zegoen joera diskurtsiboa berritzeko edo modernizatzeko?

Urte haietan Jakin katalizatzailea izan zen, euskalgintza berriaren plataforma, ideia eta aldarrikapen berrien bozgoragailua. Jakin erreferentzigune berritzailea izan zen, ez da dudarik, batez ere, berriz diot, Karlos Santamaria eta Rikardo Arregi esker.

Loriazko urteak amaiera latza izan zuen: Arregiren heriotza eta Jakinen bigarren debekua.

Soziologo eta kazetari, ibilbide akademikoa

Jarduera ezberdinetan trebatu da Torrealdai.

■ Teologian lizentziatua. Toulouse, Institut Catholique, 1972.

■ Hizkuntza Frantsesean diplomatua. Paris, Alliance Francaise, 1972.

■ Autogestioan diplomatua. Paris, "Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales" (Sorbonne), 1974.

■ Gizarte Zientzietan lizentziatua. Paris, IES (Institut d'Etudes Sociales), 1975.

■ Euskaltzain urgazle, 1975.

■ Deustuko Unibertsitatean irakasle (1976-1978; 1991-1993).

■ Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle konbidatua (1997-1998).

■ Mondragon Unibertsitatean irakasle (1998-1999).

■ "Euskal Idazleen Elkarte" erakundeko idazkari (1969-1978).

■ "Soziologoaren Euskal Elkarte" erakundeko idazkari (1979-1980).

■ Informazio Zientzietan graduako lizentziatua, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1984.

■ Zientzia Politikoen eta Soziologian Doktor, Deustuko Unibertsitatea, 1991.

Liburuak



■ **Iraultzaz**, Jakin, 1973.



■ **Euskal Idazleak Gaur / Historia Social de la Lengua y Literatura Vascas**, Jakin, 1977.

■ **Euskara eta Euskal Telebista**, Elkar, 1984.

■ **XX. mendeko euskal liburuaren katalogoa (1900-2000)**, Gipuzkoako Foru Aldundia / Jakin, 1993-2001.

■ **Euskal Kultura Gaur. Liburuaren mundua**, Jakin, 1997.



Gutxi iraun zuen aldi horrek. Pare bat urte. 1969ko uda, madarikatua da Jakin-en historian. Uztaitlean Rikardo Arregi hil zen bide istripuan, eta hurrengo hilean, Madrilgo Gobernutik, Jakin aldizkariak zigorrik handiena jasan zuen, debekua, zenbaki editoriala kantzelatzea, hau da, heriotza. Hortaz, bi hilabete eskatant *leader* eta aldizkari gabe gelditu ginen. Umezurtz.

Elkarrizketa hau bilduko duen argitalpenaren eta ohorezko saria beraren atzean Rikardo Arregiren izana dago. Inor gutxi, zu bezala, Rikardo Arregi gogoan hartzeko...

Ez dakit nola adierazi barruan dudana. Sari bat, edozein delarik ere, beti da gozo, baina hau sari baino askoz gehiago da niretzat, sariaz gainera ohorea. Sarirako izendatu nautenek ez dute imaji-

natu ere egingo eman didaten poza, ilusioa. Rikardo laguna eta lankidea izan nuen, adinkidea izatez gainera. Urtetan saiatu izan naiz Rikardoren izena eta izana ezagutarazten. Eta orain zer da eta, ordainetan bezala dator-kit haren esker ona!

XX. mendeko euskal liburuaren katalogoa argitaratzeko lan handia hartu zenuen. Nondik atera indarra horrelako ekimen erraldoiak por-tu onera eramateko?

Liburuaren mundua nire neure mundua da aspaldi honetan. Baina katalogo lanetan hasi, kasualitatez hasi nintzen, hutsunea betetze aldera. Nik lan soziologikoa egin nahi nuen Parisen nengoe-la, alegia, liburuak nola islatzen zuten kultura, euskal kultura. Baina oinarritzko informazioa falta zitzaidan, liburuaren fitxa bibliografikoak, zer publikatzen



zen. Informazioa biltzeko ahaleginetan hasi behar aurrena. Hasi behin-behinekotzat hartu nuen lana afizio bihurtu zitzaizdan gerora. Eta orain ofizio eta afizio! Lan elkorra da, astuna bai horixe, baina maratoilari bat lanaren luzeak eta handiak ez du beldurtzen.

1969tik 1977ra arte iraun zuen Frankismoak Jakin-i ezarritako debekuak. Tarte horretan beste-lako eginkizunak izan zenituen. Euskal Idazleen Elkarteko idazkari lanetan aritu ziren. Zein helburuzituen erakunde hark garai hailetan?

Hasteko eta behin, 1969an Jakin debekatu zutenean Frantziara jo nuen ikasketak burutzera, aurrena Okzitaniako Tolosara eta gero Parisera. Han egonik ere Euskal Herria nuen buruan eta bihotzean, honako prestatzen egon bai-

nintzen, eta hantxe abiatu nuen euskal kulturaren soziologia, "Euskal Idazleak gaur" liburua, esate baterako.

Hemen nengoela egia da Euskal Idazleen Elkarteko idazkaria izan nintzela, bi talderen arteko zubigile, Arestiren taldea eta Txillardegiren taldea. Euskara batua bultzatzea eta finkatzea zen elkartearen helburu nagusia, eta ez idazleen interes gremial edo profesionalak.

Frantziatik bueltan Anaitasunaren zuzendari izan zinen Bizkaian.

Bai, halaxe da. Anaitasuna krisian zegoen eta bertakoek Jakin-era deitu zuten laguntza eske. Parisen nengoen orduan. Joseba Intxaustik hartu zuen zuzendaritza, eta aldizkaria zein taldea bideratu, eta gero hartu nuen nik. Esperientzia laburra izan zen, hiruzpalau urtekoa, baina bizia eta in-

Liburuak

■ **El libro negro del euskera**, *Tarttalo*, 1998.


■ **Martin Ugalde: Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena**, *Jakin*, 1998.



■ **La Censura de Franco y los escritores vascos del 98**, *Tarttalo*, 1998.

■ **La Censura de Franco y el tema vasco**, *Fundacion Kutxa*, 1999.

■ **Artaziak**, *Susa*, (Argitaratzeko), 1999.



■ **Martin Ugalde, (Bidegileak)**, *Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*, 2003

■ **Martin Ugalde. Idazlan politikoak**. 2003.

■ **Imanol Murua Gipuzkoako Alkate**, *Alkartasuna Fundazioa*, 2004.

Gaurko eta biharko lanean



Joseba INTXAUSTI

Joan Mari Torrealдай lagunari buruzko lehen batzuketan, ez da erraza berrogei urteko elkarlanek iradoki dezaketena lehen laburretan, eta zuzen, aditza ematea. Horregatik, Joan Mariri ikusi izan dizkiodan laneko hiruzpalau puntu giltzarri azpimarratzera mugatuko naiz.

Joan Mari luma-gizona izan da, euskararen mundu idatzian eta euskarazko kultura idatzia-zen azterketan emanditu ordurik onenak. Inoren bizialdia sozialki ezagunak diren idatzlanetara biltzea zilegi balitz (eta badakigu nornahi ere hori baino gehiago dela), Joan Mariren lan-biografian ondoko une eta jarduerak azpimarratuko nituzke hemen: aldizkaria eta euskal mundu idatziaren deskribapena.

JAKIN aldizkaria: Hamarkada hauetako belaunek batez ere aldizkari honekin loturik ikusi dute Torrealдай. Bera da Jakin-en zuzendaria, guztiok hogeita hamar urteotan ezagutu duguna.



terresgarria. “Newsmagazine” formatua eman nion aldizkariari, modernotasuna, prentsa diglosi-koari aurre egin ahal izateko. Gogoratu urte horietan sortu zirela Punto y Hora de Euskal Herria, Garaia, Berriak, eta hurrengo urtean Deia eta Egin.

Urte batzuek geroago “Prentsa Euskaraz” kanpainan esku hartu zenuen.

70eko hamarkadaren erdi aldera, Franco hiltzean, prentsa elebiduna indartu zen hemen. Guk diglosi-koia deitzen genion prentsa horri. Kuestioa da kalte handia egin zela euskara hutsezko aldizkariari. Horren aurrean kanpaina anbiziotsu bat jarri genuen indarrean, 1980an uste dut, “Geu gara euskal prentsa” esaten zuena. Han geunden, oker ez banago, Anaitasuna, Argia, Herria, Jakin eta Saski-Naski. Kanpaina ho-

rretan ni Jakin-eko zuzendaria nintzen, Anaitasuna utzita.

Datuak bildu, argitara eman... Bihotz begiekin lan egiten duen analista al zara?

Zorte handia izan dut lanean eta lanarekin beti. Gustatzen zaidana egin dut. Kultura, hizkuntza, liburuak..., hori da nire mundua. Gustuko bidean aldaparik ez, badakizu.

Jakin, liburugintza, euskara... 65 urte betetzera zoaz eta euskarari eta kulturari egin diozun ekarpena izugarria da. Ekintzailea, sustatzailea... Nola definitzen duzu zure burua?

Egia esango dizut, ez dut uste nire ekarpena izugarria denik. Ez diot hori sasi apaltasunez. Hori bai, nik zerbait egin badut hori lana da, bakarka eta elkarlanean. Nola definitu neure burua? Ez

dakit; ekintzailea?, sustatzailea?
Nahi baduzu, bai, baina batez ere
langilea, eta lankidea.

Euskara eta bere zapalkuntza izan da, oro har, ikertu duzuna. Jakinen bi debekuak, Frankismoan hazi izana... Noiz kokatzen da jardun horren sorburua?

Euskararen zapalke-
tan eragiten du-
ten kanpoko fak-
toreek asko ar-
duratu naute be-
ti, batez ere poli-



tikoek. Ez da mihi gaiztoren ba-
tek dioen bezala, errua kanpora
botatzearren, baizik eta hizkun-
tza fenomeno soziala delako, eta
erabaki politikoek eragin izuga-
rria dutelako euskararen bizitzan.
Guk jaso genuen euskara hizkun-
tza marjinal eta desprestigiatua
zen. Eta horrezaz gainera, espe-
rantza sozialik ez zuen. Orduko
esaldia da, esate baterako:
ni bizi naizen artean euska-
ra ez da hilko. Hizkuntza-
ren iraupena ez dela zure
eta nire erabaki pertso-

Iritzia

Joseba INTXAUSTI

Kultur kazetaritza
horretan iraupena izan
du, bata bestearen ondo-
ren etorri diren lankide-
go gutxi asko trabatuak,
berak bildu ditu; Joan
Mariri zor zaio hor segi-
datusun eredugarri hori.
Beste hainbat antzeko
ekimen gesaldu eta dese-
ginez joan den garaie-
tan, bere bizkar hezur
lotua eman dio zuzen-
dariak aldizkariari, lan-
kidegoan eta denboran.

Ez dira falta izan une
bereziki erabakigarriak,
eta zailak ere. 1967an,
komentuko atea ireki,
eta kalera atera zen,
aldizkariak haize berriak
bil zitzan. Artean, Kon-
tzilioaren ondoko eliz
krisia sozialki lehertze-
ko zegoen Seminarioe-
tan, eta 1968ko maiatza
ez zen zeruertzean
ageri: Arantzazuko gaz-
te-giroak lagunduta, nos-
ki, baina inguru hurbi-
la gaindituz, hiriartera
eraman zuen Jakin.
Etorkizuna asmatu zuen
erabakia izan zen hori.

Inguru politikoa alda-
tu zitzaigunean (1975-
1976), garbi ikusi
genuen Jakin taldean
aldizkari izan berritua-
ren berezko zuzendaria
Joan Mari zela. Hortaz,
berak hartu behar zuen,
garai berrian, argitalpe-
naren gidaritza, batez
ere Frantziako eredu
onenak begiratu eta Eus-
kal Herriko premia kul-
turalei erantzuna bila-
tuz. Jakin-ek, euskaraz
idatzitako aldizkaria
izan behar zuen, aldi
berean mundura eta gure

[Jarraitzen du...]

Iritzia

Joseba INTXAUSTI



gizartera begira ari zela-rik.

Joan Mariri eskatu zitzaizkion gure kulturaren geografia egokiena antzematea (unibertsala eta geurea) eta aukeratutako bideari bere joana hurrengo hamarkadetan segurtatzea. Bistan da emandako hitza bete duela.

1990a izan zen Joan Mariren zuzendari-ibilbidean hurrengo data erabakigarria: frantziskotarrek aldizkaria berriz ere berareneskue-tan jartzea erabaki zuten, horretarako premiazkoa izango zen sozietatea eta lan-bulegoa eratuz joan zedin. Hau izan da, zailtzarrik gabe, aldizkarian Joan Marik egindakoe-tatik emankorrenetako. Horri bere koroa jartzeko, orain, berehalako urte batean, Jakin-eko hurrengo belaunaldia ez ezik geroko zuzendaritza ere "asmatzea" izango du hurrengo erronka.

Euskara idatziaren mundua. Horrela laburtuko nituzke Joan Marik burutu dituen beste lanen artean idazle eta liburu-aren munduei eskaini dizkien lanak. Gogora ditzadan bi bederen.

nalaren baitakoa, hori da alde batetik erakutsi nahi izan dudana. Eta bestetik, agerian utzi nahi izan dut, euskarak baduela historia beltz bat, frankismoan noski, baina haratago ere bai. Susmoa dut ikuspegi hori batzurbatzuri ez zaiela gustatu.

Zentsuraren azterketak ere sus-trai bera du, azken batean. Dok-toradutzako tesia egin nuen zentsurarekin, euskarazko liburua eta euskal gaiari egin zitzaion zentsura aztertuz. Urte asko igaro nuen han eta hemen hori aztertzen, Madril-en bertan lau urte-tan hainbat hilabete pasa nituen artxibotan.

Frankismoaren itzala hain zen sakona gizartearen inkonszientean oraindik ere indarrean zegoela erregimena amaitu eta gero. Literatura aipatuz, zurea da 1977. urtean idatzitako esaldi hau: "Zentsurapean argitaragarri ez zen moduko libururik ere ez da aterra..."

Zentsuraren harlosa gainetik kentzean hildakoak berpiztu egingo zirela uste zen nonbait, hau da, zentsura garaian atera gabe gelditu ziren obra asko plazaratuko zela orain bat-batean. Eta ez zen horrela gertatu. Zergatik? Azken batean zentsurak hil egiten duelako sormena, pentsatzeko ahalmena, eta ez bakarrik adierazpen askatasuna edo argitalpena. Basamortu bihurtzen

du kulturaren baratza zentsurak, eta horixe egin du 40 urtetan.

Zuen belaunaldia zentsuratik pasatuko argitalpenak irakurtzera ohi-tu zen. Ikerlari eta euskaltzale beza-la, Archivo Generaletik berreskuratutako Arestiren obra osoa zentsurarik gabe Susak argitara ematea garaipen txiki bat izan al zen?

Ba bai. Eta hori bezala beste batzuk ere aurkitu nituen, bere bertsio originalean. Frankismoan, publikatu diren liburu asko ez dago jatorrizko bertsioan baizik eta zentsurak orraztuta. Diozun bezala Arestiren hainbat poema aurkitu nituen han zentsuratuta, baina baita ere Joxe Azurmendi-ren *Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa*-ren lehen bertsioa, Orixe handiaren *Mamutxak* euskaraz eta erdaraz, Pio Barojaren *Misérias de la guerra* eleberria, eta gehiago. Pertsonalki aurkikundetik handiena, hala ere, Jakin aldizkariaren debekuarena izan zen. Dossier osoa aurkitu nuen, nire gestioak tarteko, eta han konturatu nintzen zein maltzurra den Estatua.

Horrenbeste denboran zentsuraren nondik-norakoak ikertzen aritu ondoren, zuk zeuk zure azalean bizi behar izan duzu modu gordinenean, Euskaldunon Egunkariaren itxierarekin. Paradoxa ala patua, zer da hori?

Pentsatzen hasita nago kausa-



efektu erlazioa dagoela nire ikerketen eta atxiloketaren artean. Esan nahi dudana da, urtetan ibili naizela Estatuaren barrunbe beltzak arakatzen, euskararen aurkako erabakiak aztertuz, zentsura frankista aztertuz, eta hori ez dela izan zenbaiten gustukoa. Horrela bakarrik esplikatu dezaket atxilotzerakoan guardia zibil taldearen buru egiten zuenak bota

zidana, esatean, idazluma batzuek pistolek baino gehiago hiltzen dutela. Nire lanaz ari zen. Guardia zibilaren aurretik esana zuten Aznarren garaiko intelektual organiko-mediatiko batzuek nirea bezalako material horiek indarkeria elikatzen zutela. Gogoratu izan diet inoiz edo behin memoria historikoa berreskuratzeari ariketa intelektualaz gainera

Iritzia

Joseba INTXAUSTI

Lehenengo, euskal idazleei eskainitako bi liburu handiak daude, Euskal idazleak gaur (1977) eta Euskal kultura gaur (1997), euskarazko kulturaren une horietako argazkia ematen digutenak. Tamaina eta xehetasun bereko beste horrelakorik apenas daukagun gure kulturaren iraganean, testuz eta irudiz hornituta, estatistikaz eta hautapenez aberatsa. Hor daude, bada, urte jakin horietako egoerak deskribatuta.

Nire gusturako, ordea, Joan Mariren ekarpen iraunkorrena, eta gertabide luze eta esanahitsua erakusten diguna beste bat da: XX. Mendeko euskal liburuaren katalogoa (1993), bere eranskin inprimatu eta ondokoei mende hori osorik hartu duena. Honek jartzen dizkie eskueran hurrengo gizaldiei euskarari idatzaren historia-ko oinarritzko datuak. Katalogo hori euskarazko gure kulturaren argudiorik onena da, gainera, etxean ezikusian dabiltzaneia eta kanpotar ezikasie gu ere, nolabait behintzat, bagarela erakusteko.

Bizialdi batean eta lagun bakar batek burutzeko aski lan izan da, gainerakoak kontatu gabe ere (soziolinguistikoa edo zentsurari buruzkoak, adibidez). Eskerrik asko, beraz, Joan Mariri.

Langile eta lankide



©Argia, 1985.

Liburuen argitalpenak eta hedabideen zuzendaritza uztartu ditu urte luzez Joan Mari Torrealdai. Eta denbora horretan guztian, euskararen eta euskal ekimen ororekiko konpromiso aktiboa: Ehunka hitzaldi eta mahai-ingurutan eragile edo partaide izan da, makina bat aldiz euskararen alde antolatutako ekin-tzetan agertu da. Irribarre ahoan.

Irribarre kutsakor horretan adierazten den armonia Jakin aldizkariarekiko erakutsitako bera da. Azken hogei-ta hamalau urtetan garai ezberdinak izan ditu aldizkariak. Eta beti zuzendari bera. Argitalpena eta pertsona. Ezin aipatu gabe utzi bata eta bestea.



©Argia, 1991.

justiziazkoa dela, eta amnesia historiarik beltzenak errepikatzeko bidea irekitzen duela.

haren benetako asmoa ez zen egiazko egunkari bat plazaratzea, nire iritzian.

Euskaldunon Egunkaria ahotan hartu dugunez, proiektu honen has-tapenetako urteetara joango gara. Nola oroitzen dituzu, euskarazko egunkaria errealitate egiteko erronka hartu zenuten urte haiek?

Urte korapilatsuak ziren Ajuria-neako Ituna indarren zegoenekoak. Eten politikoak eragin sakona ekarri zuen kulturara ere. Nola egin giro trakets eta bihurri hartan proiektu bateratzaile bat? Hori zen Euskaldunon Egunkariaren erronka, apustua, eta batzuentzat ezinaren pareko utopia. Sinetsi genuenok bildu ginen proiektu hartan. Martin Ugalderi eta bioi interesgarri iruditu zitzaigun proiektua eta bertan integratu ginen.

Egunkaria Sortzen taldeak 1989an ekin zion euskarazko egunerokoa sortzeko bideari. Presaz egin beharreko bidea zen hura, zeren Jaur-laritzak aginduta, proiektu bat jarri nahi zen martxan. Tentsiozko urteak izan al ziren haiek?

Haustura politikoa kulturara ekartzeko modu desegokia izan zelakoan nago. Guk geure bideari eutsi genion bai proiektuaren ezaugarrietan eta bai erritmoan. Eusko Jaur-laritzaren proiektu hura serio zihoan inpresiorik ez dut, ez orduan eta ez orain. Egitasmo

Azkenean Jaur-laritzaren proiektua ez, Egunkaria Sortzen taldearen proposamena bilakatu zen errealitate. Zer egin zenuten zuek ondo edo zer egin zuten beraiek gaizki?

Indar sozialetan itsatsita, ongi sustraituta Euskaldunon Egunkaria zegoen, ez bestea. Ez genekien oso ondo luze iraungo zuen, baina irautekotan honek bakarrik egin zezakeela aurrera, bai. Ireki jokatu genuen, horra gakoa. Administrazio Kontseiluan Eusko Jaur-laritzako ordezkariari leku egin genion hasiera-hasieratik, eta onartu egin zuten eskaintza lau urteren buruan bada ere, Egunkariaren atzean ez zegoela mamurik konturatu zirenean. Lau urte kostatu zitzaigun konfiantza irabaztea.

1990ean aurkeztu zenuten Euskaldunon Egunkaria, mugarri berria euskarazko kazetaritzan. Jakinentzat Santamaria edo zu zeu bezala, Egunkariarentzat gakoa Joxemi Zumalabe izan al zen?

Joxemi Zumalabek bizia eskaini zion Egunkariari. Bere osasunaren gainetik jarri zuela Egunkaria esango nuke. Bera izan da burua eta motorra. Baina ez bera bakarrik. Berarekin zegoen Argia taldeari zor zaio Egunkaria martxan jartzea. Eta haiekin batera beste batzuei ere bai, Martin Ugalderi,



Joseba Jakari, eta euskalgintzako gizon-emakume asko eta askori, Egunkaria Sortzen-ekoetatik hasi eta herri zein auzoetako euskaltzaleei.

Etaz ez zor dio Euskaldunon Egunkariak Martin Ugalde Andoaingo seme kuttunari?

Labur-labur erantzungo dizut: Jo-xemi Zumalaberi konfiantza egin

izana, proiektuaren sinesgarritasuna, egunkariaren irekitasuna.

2003an, Del Olmo epaileak Egunkaria ixteko agindua eman eta espetxeratuak eta torturatuak izan zireten. Kartzelatik atera ondoren, buruan zenuen ideietako bat pasatukoak pasatuta ere, zure seme-alabak gorrotoan ez hezitzea zen...

Zer nahi duzu esatea, gorrotoak

“ Urtetan ibili naiz Estatuaren barrunbe beltzak arakatzen, euskararen aurkako erabakiak aztertuz, zentsura frankista aztertuz, eta konturatu naiz hori ez dela izan zenbaiten gustukoa ”

“ Horrela bakarrik esplika dezaket atxilotzerakoan guardia zibil taldearen buru egiten zuenak bota zidana, esatean, idazluma batzuek pistolek baino gehiago hiltzen dutela. Nire lanaz ari zen ”

**“ Irribarra ez da
ezpainetan
sortzen
bihotzean baizik,
bihotzaren
aparra dela
esango nuke, eta
jendeari
eskerrak
emateko
modua ”**

**“ Lehengo
lepotik
dut
burua, eta
lanean
jarraitzeko
asmotan nago
noski, osasuna
eta askatasuna
lagun.**

heriotza dakar. Maitasuna, aldiz, biziaren iturria da. Gorrotoak maitasuna hil egiten du, sorlekuan bertan, bihotzean. Nola opako diot ba maitasunaren partez gorroto hiltzaile hori nire familiari?

Egunkaria kasua oraindik ez da amaitu. Kalean zaudete bai, baina epaiketa bat duzue zintzilik. Zer gertatuko dela uste duzu?

Epaitu egingo gaituztela, eta errugabe izanik ere kondenatu egingo gaituztela, agian. Hala ere, espero dezagun Justiziaren arrazoa nagusitzea eta ez Estatuen arrazoa. Nork jakin Auzitegi Nazionallean zer gerta daitekeen?

Absurdoa izan arren, egungo egoera politiko iluna erabakiorra izan daiteke zuen aurkako kausan...

Hala dira kontuak. Bultzada politiko garbia izan zuen gureak jatorrian. Espero behar dugu interes politiko hori desagertzea, eta justiziari leku egitea. Hitz hutsalak direla esan ditudanak konturatzan naiz, baina ez dakit zer besterik esan. Zeren eta guretzat justiziak hasiera bat du, epaiketarik ez egitea eta segida bat ere bai, guri egindako kalte moral eta materialen ordaina. Hauek ere hitz hutsalak dira, ordea, gaurko “desgiro” politikoan.

Pasatakoak pasatuta, zure aurkezpene txartel onena zure irribarre-ak jarraitzen du izaten.

Atxilotzean, terroristatzat tratatzean, zure izen ona edo prestigioa kakaztu egiten dute, eta bost egunekoko zulo beltzean, zure autoestima oinperatu egiten dizute eta zure nortasuna txikitu... Egun horietan, irribarra ez da erraza. Baina herrira itzultzean, zure jendearen berotasuna sentitzean irribarra berriz datorkizu ezpainetara. Irribarra ez da ezpainetan sortzen bihotzean baizik, bihotzaren aparra dela esango nuke, eta jendeari eskerrak emateko modua.


Jubilatzeko adinean sartuko zara, alabaina, zure ibilbidea erreparatuz, betiko lanean arituko zaren zalantzarik ez dago. Zeintzuk dira zure etorkizuneko egitasmoak?

Lehengo lepotik dut burua, eta lanean jarraitzeko asmotan nago noski, osasuna eta askatasuna lagun. Une honetan, zoritxarrez, bi eszenatoki batera landu beharrean nago: epaiketa ostean kartzelara joan edo etxera itzuli. Presondegirako ez dut programarik. Etxera banator, esku bete asmo daukat.

Zure memoriak paperean ikusiko al ditugu noizbait?

Ez. Ez dut uste. Idazluma ez dut erabili nahi ez autobonborako, ez mendekurako, memoria askotan gertatu ohi denez.

Komunikabideei buruz asko idatziz duzu.



Orain utzita daukat gai hori, baina garai batean asko arduratu nintzen komunikabideez, prentsa idatziaz batez ere baina baita ere telebistaz. Gustatuko litzaidake Euskaldunon Egunkariaren historia idaztea ere. Asmo hori izan dut betidanik. Baina ez dakit burutzerik izango dudana, dokumentazio guztia guardia zibila inkautatu baitzidan, material

ugari. Nik neuk biltzen nuenaz gainera nire ingurukoek edozein material entregatzen zidaten, Egunkariaren alde edo kontra. Eta nik dena gorde, egunen batean balioko zidalakoan. Zer pentsatu behar nuen ba nik guardia zibilentzat lanean ari nintzenik! Paper horiek denak garaiz itzultzen badizkirate, hitz ematen dut Egunkariaren histo-

**“ Joxemi Zuma-
labek
bizia eskaini zion
Egunkariari.
Bere osasunaren
gainetik jarri
zuela Egunkaria
esango nuke.
Bera izan da
burua eta
motorra”**

**“ Argia
taldeari
zor zaio
Egunkaria
martxan jartzea.
Eta haiekin
batera beste
batzuei ere bai,
Martin Ugalderi,
Joseba Jakari,
eta
euskalgintzako
gizon-emakume
asko eta askori”**

Sariak



■ **Kirikiño Saria** (1976), euskaraz egindako urteko kazetari-tza-lanik hoberenari.

■ **Durangoko Liburu eta Disko Azoka** antolatzaile den Gerediaga Elkartearen Tontorra Saria (1977), liburu-gintzan eta kazetari-tzan egindako lanagatik.

■ **Euskadi de Plata Saria**, (1997), *Euskal Kultura Gaur* liburuari liburu-dendari-ek emana, Donostian ospatu-riko Liburu Egune-ko Azokan liburu saldu-ena izateagatik.

■ **Euskadi de Plata Saria**, (1998), *El Libro Negro del Euskera* liburuari liburu-dendari-ek emana, Donostian ospatu-riko Liburu Egune-ko Azokan liburu saldu-ena izateagatik.

■ **Kutxa Fundazioak** antolaturiko Ciudad de Irún de ensayo Saria (1998) *La Censura de Franco y el tema vasco* liburuari.

■ **Foruko Kultur Etxeak** "Joan Mari Torrealdai" izena darama, (1999).

■ **Pen Club Luma: Euskal Pen Idazluma Saria**, (2005).



ria idatziko dudala, pentsatuta neukan bezala.

Kazetaritza titulua ere atera duzu, 1984an, ordurako urte mordoa han eta hemen zuzendari gisa egin-da gero. Berandu, ezta?

Berandu ez, beranduegi atera nuen titulua, behar ez zenean. Esplikatuko dizut. Jakin-eko zuzendari gisa, Anaitasuna-ko zuzendari gisa, legearen arabera kazetari titulua behar izan dut urte-tan. Eta ni ez nintzen tituluaren

jabe. Besteren batek utzitako tituluarekin aritzen ginen beti. Titulua atera behar nuela erabaki nuen. Bai atera ere! Baina hala-ko batean kendu egin zuten tituluaren behar hori eta ni titulua eskuetan gelditu nintzen, baina alperrik. Karrera hasi nuenean behar zen, eta bukatu nuenean ez. Tituluaren esijentzia hori, egia esan, ez zegoen sortua jakituria segurtatzeko, kazetaritza kontrolatzeko baizik. Lege fran-kista zen.



Pen Club-aren Idazluma jasotzean esandako hitzak

Ez naiz luzatuko esan eta errepikatuz niretzat ohorea, pribilegioa eta ustekabekoa dela saria edo sinbolo hau. Halaxe da, eta kito: ohorea, pribilegioa, eta ustekabekoa. Ohore eta pozaz gainera, edo gaineratik lotsa pittin bat ere badut. Lotsa dezentea, egia esan.

Zergatik? Nire aurretik asko direlako sari hau merezi dutenak. Merezi dudana ere ez baitakit, gainera. Ez jakitearren ez baitakit idazle naizen ere. Zer da idazle izatea? Ez naiz literaturgile sortzailea, bistan da. Eta hala ere, idatzi eta idatzi pasa dut bizitza.

Tresnak edo langailuak egiten badu bat ofizio, (arotza mailuak, nekazaria atxurak, informatikoa ordenagailuak) nire tresna idazluma izan denez, idazle naiz. Idazluma bada idazten duenaren sinboloa horixe da nirea. Ez dakit idatzi dudana asko edo gutxi den, ez dakit ona edo eskasa den, ez dakit egokia den edo ez, baina aitortu dut orrialde txuri ugari zikindu dudala. Eta tresna bat, bat, nirea izatekotan idazluma dela langailu hori, ez mikrofonoa eta ez kamera.

Lumarekin moldatu naiz hobekien, ideiak azaltzeko, informazioa zabaltzeko. Martin Ugalde zenak esan ohi zuen berarentzat tarte egokiena burutik hatzamarretara doana zela, eta ez, burutik mihira.

Motxegia distantzia hau.

Ez dakit horregatik izango den, baina nire bizitza profesionala idatziari lotua egon dela azken 40 urteotan, egia da. Bi modutara: Neuk idatzi dudana da bat, eta besteek idaztera bul-

tzatu eta haiek idatzitakoa bideratzen egin dudana da bestea. Bata eta bestea elkarren osagarri.

Nik idatzi dudana liburu, aldizkari eta egunkarietan dago zabaldua, gordea edo galdua.

Besteek idatz dezaten modua egiteko ahalegina ez da gutxiestekoa nire ibilbidean. Horretan saiatu naiz.

Jakin aldizkarian, hogeita hamar urtetik gora zuzendari gisa. Eta ia 13 urtetan, tresna kendu ziguten arte, Euskaldunon Egunkarian, nire modura. Biak ulertu ditut plataforma libre, askotariko eta independente gisa. Zentsura, murrontza eta tamaina guztietako presio eta debekuen gaineratik.

Idazle gisa egin dudana lana ulertu nahi duenak bi osagai uztartu behar ditu nire bizitzan: soziologia eta kazetaritza. Hala ikusten dut nire burua, formazioz bezala profesioz. Bien arteko ezkontzaren emaitza dira nire lan gehienak. Soziologo bezala errealitatea aztertzea interesatzen zait, egungoa zein historikoa.

Kazetari gisa, azterketa horren berri eman nahi izan dut. Azterketa eta honen dibulgazioa, biak batera doaz nire lanean, langaia edozein delarik ere: dela zentsura, dela bibliografia, euskalgintzaren gorabeherak, edo kultura idatziaren azterketa nahiz azalpena. Formatu baino areago informatu egin nahi izan dut beti, (dotrina gutxi eman dut nik). Informatu: itzalean gelditu zaigun egoera, isilarazi diguten errealitatea, edota transmititu ez zaigun historia ezagutzera eman. Informazioz elikatu gure kultura, informazioz elikatu gure herria. Adiera horretan informazioa

ez da datu soila, baizik eta datua eta analisia, testingurua, ikuspegia: objektua eta begiak, biak. Informazioak, fidagarria denean, nire ustez sekulako indarra du: nola belaun transmisioan, hala herri kontzientzian, gizabanakoaren kontzientzian zein kolektiboan.

Hitz batez, errealitate historiko, sozial zein kulturalaren sukaldeko berri ematen saiatu naiz. Zentsura frankistaren kasuan, esaterako.

Ongi ulertu badut, nirea adina belaunaldi batena den traiektoria hau, saio edo esfortzu hau saritzen duzue gaurkoan. Eskerrik asko.

Baina ez hau bakarrik, ezta?

Duela bi urte traiektoria hau, (eta honen pareko beste asko) Estatuaren infernuko zulora bota zuten batzuek. "Ecce homo" idatzi zuen Bemardo Atxagak. Hainbat eta hainbat lan, dossier, dokumentu, karpeta, eta dietario guztiak, harrez gero "documento intervenido" dira. Hamaita orduz ahal izan zuten guztia harrapatuta, han dago guztia guardia zibilen esku, eta ez nik nahiko nukeen berezko irakurlearen eskuetan. Euskal kultura erdiaren informazioa guardia zibilen eskuetan dago: Egunkaria oso-osorik, eta Jakin, Argia, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa, Zabaltzen, Plaza-gunea, Ikastolak, Partaide. Eta lehenago: Egin, Ardi Beltza, AEK...

Irakurle "berri" horiek ez dute gure lana inoiz ulertuko.

Nire herritik Madrila ninderamatela, eskuak burdinez lotuta, burua estalita, zergatik ninderamaten Ben Laden baten moduan galdetu nien. Eta buru egiten zuenak eman zidan gako esplikatzailea: "Hay plumas que matan más que las pistolas". Nitaz ari ote zen galdetu nion.

Gutako inortxoz ezin ziren ari, gezurra da

eta: pistolak baino areago hiltzen dituzten idazluma omen daude. Ez dira geureak.

Ez dute ulertu nahi eta ez dute ulertuko euskararen alde eta euskal kulturaren alde lan egitea ez dela indarkeria bultzatzea, guztiz kontrakoa baizik. Ez dute ulertuko, ez dute ulertu nahi eta. Ez zaie komeni eta!

Gaur jaso dudana idazluma honek ez du inor hilko.

Zuen laguntzarekin, Pen Clubaren laguntzarekin, kultura eraikitzen jarraitu nahi dut, euskalgintza elikatzen. Eta gainera, zuen laguntzarekin, euskal kultura eta euskalgintzako gizon eta emakume guztien ohorea defendatzen, gezur guztien gainetik.

Idazluma honen bidez, eta zuei esker, orain arte bezalatsu, zentsura, sorgin ehiza eta inkisizio mota guztiak salatuz jarraitu nahi dugu, azken aldiko izenik gabeko salbuespen egoera honetatik hasita.

Bukatzer a noa, hasi naizen bihotz beretik. Eskerrik asko handi bat Pen Clubari eskainiz, nire neure izenean noski, baina nago beste askorenean ere baietz: hainbat urtetan Jakinen izan ditudan lankideak ditut gogoan, Egunkaria proiektua sortzen eta gidatzen izan ginonok eta bereziki orain Egunkaria auziko bidegabekeria jasaten dugunok ditut bihotzean, eta beste asko. Horiekin guztiekin batera esaten dizuet nik, Pen Clubari esaten diot, animo eta jarrai aurrera askatasun handiaren baitan askatasun txiki guztien bide eta xendak lantzen.

Aurretiaz eskertzen diot Pen Club-ari eskatzen diodana: eman dezala munduan gure berri, gure eskubide murrizketen berri.

**“Lumarekin
moldatu naiz
hobekien, ideiak
azaltzeko, informazioa
zabaltzeko. Martin
Ugalde zenak esan ohi
zuen berarentzat tarte
egokiena burutik
hatzamarretara doana
zela, eta ez, burutik
mihira**

Kazetaria soilik baino gehiago



Joxe AZURMENDI

Filosofoa

Joan Mari Torrealдай kazetaria soilik baino gehiago da, eta gehiago ere izanez da kazetari. Pentsalari kritikoa da, doktorea da soziologian, etab. Jakin-eko denok gara nolabait idaztera aldizkariaren inguruan etorriak. Baina gure artean inork izan badu kazetari sena eta kazetari estilo naturala luman, Joan Mari izan da hori. Horregatik izan da urte guztiotan, eta da orain ere, gure zuzendari. Eta gaur haren ohorapenak denok ohoratzen gaitu.

Kazetari estilo argia eta zuzenekoa da Joan Marirena. Kuriosoki, urruntasunean Rikardo Arregi gogoratzen du, hastapen gazteetako adiskidea. Rikardoren antzera, orobat, Joan Mari ere albistegiko kazetaria baino gehiago informazio gogoetatukoa da. Analitikoa, estiloan bezala pentsaeran. Estilo hori berak artikulu laburretik tesi doktora izan duen zentsura frankistaren ikerketaraino problemarik gabe heda lezake. Praktiko da. Testu garbi bat ateratzen da beti haren lumatik, edo haren ahotik — edo haren konputagailutik orain. Estiloa pertsona baita, aspaldi esana dagoenez.

Gure historiatoak eta bere printzipioek

ezarri dioten traiektorian, Joan Marik, kazetaritzan bertan ere, kazetaria soilik baino gehiago izan behar izan du: gaztetxorik hasi eta gaur arte, urte askoan ikusi dugu kazeta zuzendari. Horrek gure hizkuntzan eta baldintzetan esan gura du, proiektuen diseinatzaille, lan ekipoen kudeatzaille, produktu txikien enpresari eta miseria handien bankari askotan izan behar izaten duela. Izan ere, euskarazko kazeta baten zuzendaria kazeta sortzaile edo birsortzaile, birregituratzaile, finantzari, saltzaile, auzitegien aurrean defendatzaile, etab., etab., multi-ofizio konplexu bat izan ohi da. Lan horietan ere Joan Mariren dohainak estiloaren berak dira: proiektuaren definizio garbia buruan, helburu zehatzak eta helbideen errealismoa, kalitatearen ardura zorrotza produktuarentzat, lankideen gidaritza bat kasi ohartzen ez dena, efikaza, harpidedun eta irakurleen arreta, inguruaren behaketa, euskarazko beste proiektuen terrenoak ez inbaditzea, euskal mundu osoarekin solidaritatea.

Esan dezagun, bere talentua eta ahalegina aparte, Joan Marik zori argizkoa ere gozatu

duela bere bilakabidean. Lagun eta lankide izan ditu Karlos Santamaria, Rikardo Arregi, Joxemi Zumalabe, Martin Ugalde, Torrealdairen ohore egun honetan gogoratuak izatea merezi duten izen sakratuak euskal prentsaren gerraosteko historian.

Laguntzaile onak izan baditu, bera ere beti laguntzaile handia izan da Joan Mari. Hasteko, aipatu izen horietxen lagun eta laguntzailea: Santamaria, Rikardo, Joxemi, Martin Ugaldereana, bizi ziren artean horien proiektuena, eta horien memoriarena gero. Baina baita ere, esaterako, Bilboko Anaitasuna aldizkariarena frankismoko azken urteetan.

Azken urteetan berezi-bereziki Euskaldunon Egunkariaren alde ipini zituen bere dohainak eta ahalak, burua eta bihotza: aurrena Egunkaria Sortzeneko harremanetako taldean aktiboki jardunez, Martin Ugalderekin batera; gero Kontseilu Editorialeko buru bezala, eta Administrazio Kontseiluko lehendakari hurrena. Eta kargu honetan eraman zuen guardia zibil espainolak, denok gogoratuko duzue irudia, eskulutua eta burua estalita itsumustuka, gaizkin arriskutsu

bat bailitzan. Bernardo Atxagarena dela uste dut ideia: irudi oilakiarazgarri horretan jende askok ikusi du bere burua, Euskaldunon Egunkaria, euskal kultura guztia, Joan Mariren pertsonan pertsonifikatua.

Horregatixe eraman zuten: kazetaria soilik baino gehiago delako. Euskarari egiten zaizkion irainen eta zigor eta injustizien salatzailea delako. Euskararen askatasuna eta bizia defendatzen delako. Euskararen langile delako, militantea eta profesionala. Azkenean, euskararen Amaiur honetan, edozein euskal kazetari kazetaria soilik baino askoz gehiago da. Eta hori, dirudienez, poliziak ulertu du ongiena.

Baina juez eta polizia espainol batzuentzat susmagarria den hori guztia, bihotzetik eskergarri eta ohoragarri delako guretzat, Joan Mari Torrealdei Rikardo Arregi Sariarekin ohoratuz, solidaritasuna erakusten diegu hari eta haren epailagun injustuki auzipera-tuei, eta familiari; eta Euskaldunon Egunkaria ohoratzen dugu, euskal kazetaritza guztia, eta geure buruak, Joan Mariren pertsonan pertsonifikatuak nolabait. Zori argitsu, beraz, geroan ere, eta eskerrik asko.

Hartutako lanera bildu



Joxe Ramon BELOKI

Senataria

Joan Mari Torrealдай adiskideak oho-rezko aipamen hau jaso behar duela eta, euskara hutsezko egunkariaz, jadanik hamasei urte pasa, gai horren inguruan ibili nintzeneko oroitzapenetara bueltatzeko gomita egiten didazue. Ez pentsa erraza denik. Ez naiz, nolanahi, erraza izan ala ez, saiatu gabe behintzat, hain eskaintza esker-garrietatik ihes egitearen aldekoa. Beraz...

Ez zait sekulan gogotik joan, Joseba Arregi, garai haietako Kultur Sailburuak, eskaintza egin eta buru-belarri lanean jarri nintzeneko hartan nire lagun batek esan zidan hura: “Ba al dakik non sartzen haizen? Ez zekiak, oraingo honetan, gai korapilotsu horretatik nola aterako haizen”.

Euskara hutsezko egunkariarena, gai korapilotsua zela (eta gaur oraindik dela) bistako zerbait zen. Lan eskaintza hari baietza eman nionerako ohartuta nengoen horretaraino. Egunak, eta lanak aurrera egin ahala, garbiago izan nuen garai zailak zetozela egunkari guztientzat, eta zer esanik ez berritik, eta zer eta euskaraz sortu nahi zuen baten-tzat. Gogoan dut egunkarigintzako tenden-tzi berriez Iruñan ospatu zen, eta parte hartu

nuen ikastaro moduko hartan entzun eta ikasi nuenak zer nolako zirrara sortu zidan. Bi punturekin gogoratzen naiz bereziki: Egunkarien aldetik, irudien mundua dator nagusitzen, kolorea barne, esan zitzaigun han, letra idatziaren kaltetan. Eta bestetik, egunkari enpresen aldetik, multimedien ordua da hau —egunkarigintza, irratigintza eta telebistagintza elkarrekin— orain arteko mundu sailkatu horren orde.

Nik, hasieratik bertatik, garbi nuen. Ez nekien Kultur Sailburuaren eskutan jarriko nuen txostenarekin noraino asmatuko nuen. Baina, asmatu ala ez, nire gomendioak etorkizunari lotuak izango ziren, eta ez, inolaz ere, ordura arteko egunkarigintzaren imitazio eta kopiatzeari. Egunkari benetan “berria” ezinbesteko baldintza iruditzen zitzaidan etorkizun luzekoa nahi bagenuen, eta nire iritzia zen euskarak zerbait behar bazuen holakoa behar zuela.

Bakarra izatearena zen, hasieratik bertatik, garbi ikusi nuen ezinbesteko beste baldintza. Ez niri bat baino gehiago izatea gus-tatuko ez litzaidakeelako, jakina. Euskara-ren egoerak, ordukoak eta gaurkoak ere oso

oker ez banago, horretara behartzen gintuela uste nuelako baizik, baldin eta oinarri “sendoen” gainean (luze hitz egitekoa litza-teke hau), eraiki nahi bagenuen.

Nola burutu, ordea, nire lana oinarri edo helburu horien atzetik?, izan zen nire buruari galde egin niona lanean jartzeko orduan.

Ohartuta nentorren, esan bezala: Edozein egunkarirentzat zaila zen hura, euskarazkoarentzat zailago, eta bizi genuen “giroa” kontuan harturik are eta zailago (azken honetatik, batez ere, nire lagunaren kezka).

Ordurako, gogoan izango du irakurleak, jadanik hedatua zebilen gizartean euskarazko egunkariaren “saltsa”. Joan Mari Torrealdai besteak beste, buru-belarri sartuak zeuden, egunkari bat aurrera ateratzeko asmo eta lan jakinetan. Bi egunkari “proiekturen” arteko lehiaren hotsak hortik atera ziren. Gobernuak “berea” egiteko intentzioak izan balitu bezala, eta lan horren enkargua nire eskutan jarri izan balu bezala.

Zer egin orduan?

Nik garbi izan nuen une oro. Hartutako lanera bildu. Eta hura ahalik eta txukunen burutuan saiatu, esanak esan.

Egin nuena zera izan zen: lan talde bat martxan jarri, ahalik eta irekiena (esker ona baizik ez diet gorde ordutik lan hartara bildu zirenei, guztiei). Eta ahalik eta irekien jokatut, bai hainbat jenderi kontsultak egiteko orduan, bai eta egiten genuen lan guztia ahalik eta gardentasunik handienarekin eginez.

Burutu, enkargua egin zigun Sailburuaren eskutan utzi, eta, gero, gure gomendioz Kultura Sailak argitara eman zuen txosten hura da gure lanen (ez guztien, gehienek baizik) testigu. Eta diot “ez guztien”, txosten harekin batera beste txosten ekonomiko bat ere

enkargatu eta burutu genuelako, hala nola bestelako zenbait lan eta harreman izaten ere saiatu ginelako, besteak beste orduko giroak egunkari berriaren etorkizuna gehiegi baldintza ez zezan okerrera. Sailburuaren eskutan utzi genuen txosten hartan hustu genituen, nolanahi, gure uste eta ikasi gehienak eta onenak. Eta gureak diot, osatu genuen taldearenak izan zirenez (azken orduan kontra agertu zenaren iritzia barne). Hor daude, gaur oraindik, norbait, hamasei urte geroago, begiratu nahiko balitu.

Euskarazko egunkariaren historiak hainbat pauso eman du egun haietatik hona. Joan Mari Torrealdairi esker, besteak beste. Beti pentsatu dut –gaur oraindik– abiapuntu eta oinarri sendoagoekin abiatzeko parada izan genuela urte haietan, eta ez genuela aprobetxatu bere guztian. Honek, beti ere, halako kezka puntu bat pizten dit barruan. Ez baita aski borondate ona, ez norberarena ez besteena, gauzak, besterik gabe, ondoen egiteko.

Baina, ezta honetan ere, atzera begira jartzeak ez du gehiegi merezi. Ez bada, batez ere, gaur zuek Joan Mari Torrealdairekin egiten duzuen egiteko: egindako lanagatik ohorezko aipamena egin, eta aurrerantzean ere, euskararen, euskal kulturaren, eta euskarazko egunkarigintzaren aldeko lanetan jarrai dezala eskatu.

Hori da nik, baita, batez ere, helarazi nahi nioken mezua Joan Mari Torrealdai nire lagun aspaldikoari.

Eta bukatzeko. Gaur oraindik, euskarazko egunkariaren alde egin duen lan horren guztia truke edo, kartzelako bidean ikusi nahi bide duten horiei guztiei, beste hau esan nahi nieke: Ez al duzue aurreko lanik?



Usurbilgo Udala

Euskal kazetaritzarekiko borondate eta asmo irmoak



Mila esker eta
mila zorion Joan Mari





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística